




SANTO TOMAS
LIZEOA



BALIABIDE KLABEAK

Baliabide proposamenei dagokienez, aplikazioaren kontsumitzaileei eskainiko diegun gauza garrantzitsuenak beraien kirol berdina praktikatzen dituzten pertsonekin harremanak sortzea (honela korrikalarien arteko komunitatea areagotzeko) eta online denda izango dira. Batez ere denda aipagarria da, kirolari guztiei zuzenduta dagoelako, ez bakarrik korrikalariei. Esate baterako, futbolean edo gimnasioan ibiltzen bazera, “runner” -en arropa, elikagai edo suplementu berdinak kontsumitu ahalko dituzu; baina aplikazioa zehazki korrikalariei zuzenduta dagoen zerbait da.

Bestalde, diru gehien kostatuko duten baliabideak aplikazioaren eta web horriaren montaiak izango dira. Alde batetik, informatikan aditua den norbait kontratatatu beharko dugu, beraz, ordaindu beharko diogu eta bertan dirua gastatuko dugu. Hala ere, aurrerago aplikazioa ondo funtzionatzen badu etekinak lortuko ditugu eta montaian gastatutako dirua berreskuratuko dugu. Horrez gain, hasiera batean, mantentze lanean eta produktuetan ere dirua gastatuko dugu, baina aurrerago lortuko ditugun irabaziekin kostu horiek ere asetuko ditugu.

Azkenik, gure aplikazioa nonbaiten publikatzeko ordaindu beharko dugu (gure kasuan “play store” eta “app store”). Argi dago proiektu hau hastean diru asko galduko dugula baino beharrezko baliabideak eta diru sarreak ditugula uste dugu hasierako galera hauekin bukatzeko.